Artzape
getariarron topagunea

2021eko otsaila 211. zbk

KAXILDO ALKORTA, ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ GETARIAKO ITSAS HISTORIA BERRERAIKITZEN

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

7 Harritarten txutxupeka

16-19 Elkarrizketa: Kaxildo Alkorta

4-5	Salberak Itsaskabrari
5	Gomendioa
6	Iritzia: Saioa Martinez de Lahidalga Azkue
7	Harritarten txutxupeka
8-9	Argazki erreportajea
10-15	Erreportajea: *Getariako Naufragioak*
16-19	Elkarrizketa: Kaxildo Alkorta
20	Elan Euskadi
21	Bi hitzetan
22-23	Eskolako aretoko igandetako zinia
23	Urritza Aisialdi Taldea
24	Getariako hitza eta Txikiegia agian
26	Agenda eta Zuen txokoa

2021eko otsaila 211. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / info@artzape.eus
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Edurne Irigoien, Eider Iribar, Elan Euskadi GKE, Fuldain farmazia, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti, Ximon Aranguren eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIGOR SAIZAR

Nire paisaia, nire Getaia

Jon Cazenave argazkilari donostiarraren erakusketa ikustera joan ninduan Tabakalerara. *Galerna* jarri ziok izenburua zuri-beltzeko argazkiz osatutako erakusketari, nahiz eta galernak hondartzara ekarritako harri borobildu koloretsuen argazkiekin amaitu erakusketa. Une batean, Iratiko basoan ateratako argazkiaren aurrean geundela, bisita gidatua zeramaan emakumeak esandako esaldi bati erreparatu nioan: "Badirudi Euskal Herriko paisaia bat eta bakarra dela guztion iruditerian. Baina bakoitzak bere Euskal Herriaren paisaia du".

Getaira ekarri nian esaldia. Getaiaren paisaia bakarra ote? San Anton mendia, baforeak, mahastiak, eliza eta Kale Nagusia, jatetxeak eta parrilak... Ba ez, ziurrenik bakoitzak bere paisaia propioa dik gure herriarena. Nik neurea azalduko diat, nire paisaia. Nire Getaia bost zentzumenekin lotzen diat.

IKUSMENA: San Anton mendiko hirugarren plazoleta igo eta handik ikusten den Getaia. Edo Garate gainera igo eta mahasti tartean bakar-bakarrik dagoen zuhaitzaren magalean eserita begi aurrean azaltzen den herria. Batean hala bestean maite diat herria kaioen antzera ikustea, etxeetako teilatu gorriak itsasertzaren urdinarekin edo zelaien berdearekin nola nahasten diren begiratzea.

ENTZUMENA: arratsaldeko zazpi t'erdiak inguruan kanpaien din-dana, kanpandorretik hegan abiatzen diren kaioen orroak edota arrantzaleek arraina ekartzen diatenean kanpandorretik jotzen den sirena hotsa. Bat antxoa, bi antxoa ez den beste edozein arrain (udan batik bat atuna).

UKIMENA: Artzapeko petrila berritu aurretik, labanak zorrozteko arrantzale erretiratuek erabiltzen zituzten harlauzak, udan Amabirjinan zanbullaka edo "azkena-ikutzen" jolastuz bainuan ibili ondoren, lurrean etzan eta harlauza lisoak ematen zuen laztan goxoa.

DASTAMENA: udaberriko lehen antxoa txikia, zilarrezkoa. Aitaren marmitako iluna, tipula belztuarekin egindakoa... eta irailean traktoretik lapurtutako mahatsak.

USAIMENA: gure herriko usaimenaren paisaia urtaroen arabera irudikatzen diat. Neguan, itsasaldiek sortutako olatutzarren kresal usain gazia. Udaberrian antxolanean zebiltzan lonjetan sortzen huen antxoa usain sarkorra. Udan parriletan erretzen ziren arrainen usain hipnotizatzailea. Eta udazkenean mahats usain mingots eta gozoa edota hondartzan nahiz haitzetan agertzen zen goroldio usain itsaskorra.

Hor duk nire paisaia, nire Getaia. Eta hirea? Zurea, irakurle, zein da hire/zure Getaiko paisaia?

JON ANDER DE LA HOZ

Norberak, bere paisaia

Ariketa interesgarri bezain polita ekarri diguk hil honetako alerako, Zigor. Norbere herria dek bakoitzaren aberri ttipia, eta, nire irudipenez, iruditeria oso intimo batek osatzen dik hori. Hara non, ordea, hire testuari erreparatuz ohartu naizen badizkiagula tankerako defendatzen dizkiagun zenbait zentzumen.

Horri tiraka, herritar multzo batek —zeu tartean, irakurle— entzumen, usaimen edo ukimen berak hautatzen dituenean ez ote da herriaren izaeraren adierazle? Baietz uste diat, Zigor. Hargatik, pozez leitu diat biok elkarrekin dizkiagula batzuk. Horratx nireak:

IKUSMENA: Katean lotutako baforeen kolore biziek sortzen duten pasaia. Deigarria egin izan zaidak beti. Geldirik, baina une berean bizitasuna iradokitzen ditek, niretzako. Bat hori, eta bestea, udako goizetan eguzkiak irteterakoan sortzen duen argi deskribaezin hori.

ENTZUMENA: Nik ere sirenarena hautatuko nikek. Herri honetan bizi izan naizen bi etxeetan dozena bat urratsera nian eliza, eta sirena entzutea bahuan gure paisaia sonoroaren adierazle oso argi bat. Behin eguerdiko 12:00ak jotzerakoan Donostiako Erdialdean entzun nianean, Getaria etorri zitzaidakean gogora. Agian, ez duk bakarra izango, bai ordea, oso geurea.

UKIMENA: Amona zenaren eskuak. Oso gordean diat hori. Artean haurra zela antxolanean hasitako emakume baten eskuek urteen higaduraren poderioz izan duen aldaketa, zartatuak nik ezagutzerako. Senarra itsasoan zen bitartean etxeko egunerokotasuna aurrera ateratzeko lanabesak. Begiak itxi eta eskuak harengana bilduz gero, esango nikek harenak direla.

DASTAMENA: AITONAREN MARMITAKO ILUNA. Letra larriz.

USAIMENA: Hemen ere bat netorrek hirekin. Mahats usain mingotsa oso barneratua diat. Udazkenean Ubiri ingurutik korrika egitean sudurzuloetatik sartzen den usain hori; agian, landa eremuan ohikoagoa izango dena, baina ni urte sasoi horretan soilik harrapatzen nauena. Hori, eta elizako intsentsua. Ez nauk ni kristaurik abilena, inondik ere, baina gustatzen zaidak oporretan nagoenean elizetara-eta gerturatzea. Bada, intsentsu usainak beti Getariako eliza gogorarazten zidak. Bazekiat, noski, ez dela esklusiboki bertako elizako usain bat, guztietan dagoela. Nire garunak lotura hori egiten dik, ordea. Eta hori ere badek Getariako paisaia intimo baten erretratua.

Bide batez, eta paisaiez ari garela, nire eskerrak eman nahi zizkieat herriko paisaia historikoa osatzen lagundu dutenei. Naufragioei buruzko liburuaz ari nauk: norbere etxeko gertaera intimoak berritzea, sarri gertakari ilunetan arakatuz, zertarako eta jakintza kolektiboan beren aletxoa jartzeko. Eskerrik asko.

JOXI ERAUSKIN

Kafe tristearen balada

Carson McCullers 50 urterekin zendu zen, oso bizitza gogorra izan ondoren. Mundu osoan ospetsuak bihurtu ziren hainbat obra idatzi zituen, asko zinemara egokitu zituztenak.

Esan dezakegu bere maisulana dela aipagai dugun liburu hau. Eleberri labur batek eta sei ipuinek osatzen duten obra honetan biltzen dira idazle honen narratiba berezi eta zorrotzaren ipuinik esanguratsuenak, dagoeneko Ipar Amerikako literatura modernoaren klasiko izatera iritsi direnak. *Kafe tristearen balada*ko ipuinek Amerika sakoneko giroa islatzen dute eta narrazio guztietan azaltzen da bertako pertsona arrunten egunerokotasuna nahiz marjinaltasuna. Badirudi inoiz ez dela ezer gertatuko istorio hauetan, baina, bat-batean, norbaitek baretasuna hautsiko du, espero gabeko ekintza batekin.

Asun Garikanok itzulitako liburu honek pertsonaiak begien aurrean jartzen dizkigu, baina haien inguruan idatzi gabe, haiei uzten dielako hitz egiten. Amerika sakoneko giroa atsegin duen irakurleak gustura irakurriko ditu kontakizun hauek.

SAIOA MARTINEZ DE
LAHIDALGA AZKUE

ItsaSO

Azti ikerketa zentroan lan egiten duen eta ozeanografian aditua den Anna Rubiori Radio Euskadiko *Hágase la luz* programan egindako elkarrizketa entzun dut.

— Zer da itsasoa monitorizatzea? –galdetu dio irrati esatariak.

Finean, itsasoari erregulartasunez so egitea ei da. Adituak azaldu duenez, populazioaren %25 kostatik gertu bizi da. Euskal Herrian, portzentajea are altuagoa da, populazioaren %60 kostaldetik bost kilometro baino gutxiagora bizi omen daeta. Kostaldeko herrietan bizi garenok, itsasoari begira egoteko ohitura dugula aipatu du Anna Rubiok. Eta itsasorik gabeko lekuetan hura faltan botatzen dugula pentsatu dut nire baitarako.

Azkoitiara bizitzera joan den lagun batek hala esan dit, hutsunea sentitzen duela: "Getaian, akaso enai egunero jaitsiko moia itsasua ikustea, baina badakit hor daola". Bilbon bizi nintzenean sentitu nuen itolarriaz oroitu nintzen. Esajeratuegia izan daiteke zenbaitentzat itolarri hitza, baina hala sentitu nintzen ni hiri handian, itota. Itsasoa ikusi eta entzutea plazer izugarritzat dut aspaldidanik. Badakit hor dagoela, nahi dudanean ikus dezakedala, senti dezakedala, busti nazakeela. *Barnealdeko herrietan bizi direnek ba al dakite edo interesatzen ote zaie, gaur, adibidez, eguerdiko 12etan marearen egoera zein izango den?*, galdetu diot neure buruari. Gaztetapetik paseotxo bat emateko garrantzitsua da, bada, hori jakitea.

Kirol portuan amarratuta dauden txalupak eusten dituzten txikoten marruskadurak sorturiko soinu hori zirraragarria zait. Orduak emango nituzke musika hori entzuten. Kkkkkkkkkkkkkkrrrrrrrrrrrrrrrrrr.

Zura eta ura liburuan, hainbat idazleren hitzak ere biltzen dituen liburu zoragarrian, Konrado Mugertzak argazkien bidez azaltzen digu azken bi hamarkadatan kirol portuetan gertatu dena. "Zuriak estali ditu koloreak", aipatzen da testuan. Itsasontzigintzan zuraren ordez material sintetikoak erabiltzeak, arrantza portuen kolorearen desagertzeaz batera, ia oharkabean, identitate galera ere ekarri duela aipatzen du. Eta ados nago. Fatxada zuridun etxeak, denda eta taberna argiztatuegiak, yate zuriak eta auto zuriak edo beltzak. Koloreek gerra galdu dute eta era berean, bizia galdu dute herriek. Poliesterra ez omen da zahartzen, baina zahartzea, nonbait, jakintsuagoa egitea ere badela dio Mugertzak, eta zurak asko dakiela horretaz. Betierekotasuna garrantzitsu bihurtu dela uste dut, betikoa baztertuta. Egurrak badaki zertaz ari naizen.

Itsasoa ezin da esku ahurrean hartu. Atzamarretatik ihes egiten digu urak, eta harekin, itsasoak. Eduki ez arren, senti dezakegu. Bada zerbait.

Infiniturantz

"Nork esango zigun duela urtebete?" edo "esan izan baligute, ez genukeen sinetsiko!". Horixe entzuten diet aitatxori eta amatxori behin eta berriro.

Nik hori ez dut ulertzen. Gu hemen gaude, beti bezala, eskolan, herrian. Handiek aurpegia erdia tapatuta daukate, baina begietan irakurtzen diet pozik, haserre edo triste dauden. Eskuak askotan garbitzen ditugu hatz txikitik handira eta buelta. Horrela xomorro gaiztoak hil egiten direla esaten dute; niri xomorro txintxoak gustatzen zaizkit, gaiztoak ez. Aitonari eskola labirinto bat bihurtu dela esaten diot. Betaurrekoak ditu, baina ez daki mapak irakurtzen. Nik bai. Koloretako geziei jarraitzen diet gelara iristeko edo komunera joateko. Txikia naiz baina handia ere bai. Metro eta erdi zenbat den badakit: asko!

Azken urte honetan asko ikasi dut. Gure etxeko balkoitik ez nuen udaberria loratzen ikusi, baina eskulan eta marrazki pila bat egin genituen etxean. Eta bizkotxoak! Nire urtebetetze eguna ospatzeko aukera daukadan hurrengoan, munduko onena dela esango dute nire lagunek, seguru!

Gainera, atari berri-berria egin digute. Oso polita da. Asko gustatzen zait hondarrarekin jolastea, ezkutatzea, eskuak uretan bustitzea eta harriak batetik bestera mugitzea. Lan handia egin dute kamioian etortzen ziren handiek. Amatxo laguntzera joan zen egun batean, amantalik gabe, eta arropak zikinduta etorri zen. Nik badakit hormaren zer zati margotu zuen amatxok. Baina ezin dizut esan, bion arteko sekretua da.

Bi urteko gelak super hiper berriak eta politak dira. Opor luzeak eta gero txikiak etorriko dira hona. Gu handien gelara joango gara handien gauzak egitera. Nik atzo, siesta egiten nuen txupeteari zupa eta zupa, eta kaka eta pixa pardelean, baina orain ez. Handia naizelako.

Handiagoa naizenean astronauta izan nahi dut. Asko gustatzen zait eskolan eraiki dugun espazio ontzia gidatzea. Saturnora joaten naiz Malen eta Jakesekin. Badugu lekua zuentzat ere. Igo gure espazio ontzira eta bidaia zoragarria egingo dugu elkarrekin. Urratsez urrats, infiniturantz!

Haurrak Bizarzuri ikusteko ilaran.

Bizarzuri, agurtzen.

Bizarzuriren laguntzailea goxokiak banatzen.

Saltokia, Errege Magoen etorreran.

Errege Magoak elizan.

Presoen aldeko manifestazioa Getaria zeharkatzen.

Manifestazioaren amaiera plazan.

Aner Peritz eta Andoni Egaña San Antonetako bertso saioan.

Publikoa bertsolariei adi San Antonetako saioan.

Ane Zuazubiskar eta Oihana Iguaran San Antonetako bertso saioan.

Txakolina zerbitzatzen San Antonetako uzta berriaren aurkezpenean.

Emilio Ostolaza Getariako Txakolineko presidentea.

Txakolingileak uzta berria dastatzear.

Gotzone Sagardui txakolin berriarekin.

Zirkuan, uztaiaren barruan bueltaka.

Zirkuko akrobatak.

Amancay Gaztañaga *Matriuska* antzezlanean.

Matriuska antzezlaneko eszena bat.

Gogorra izan da testigantza eman dutenentzat bizitakoa berriro gogoratzea. Emaitzarekin gustura daude, ordea, eta ondorengoek herri honetako bizimodua ezagutzeko balioko duela uste dute.

Testua
INTZA GURRUTXAGA

Getariako Naufragioak

ITSASOAK ERAMANDAKOEN OMENEZ

Aranzadi Zientzia Elkarteko Ana Mari Benito eta Javier Mazpule azken 100 urteetan Getariako kostaldean zein inguruko uretan, baita itsasontzi getariarrek beste kostalde batzuetan izandako hondoratzeak aztertzen aritu dira. "Getariako Naufragioak. XX. mendea" liburua izan da ikerketa horrek utzitako emaitza.

Ez da hutsala 1905az geroztik ia gaur arte Getarian izandako naufragio kopurua; Aranzadiko kideek egindako ikerketaren arabera, 39 dira. Jasotako lehenengo hondoratzea *Manolo* itsasontziarena da, 1905eko azaroaren 13an datatutakoa; azkena, aldiz, *Berriz Patxiku* ontziarena, duela lau urte gertatutakoa, 2017ko irailaren 25ean.

Hondoratze horietako bakoitzaren atzean pertsonak eta familiak daude, eta lan hau, nolabait, horiei guztiei omenaldi edo aitortza bat egitera dator. Naufragioak kausa desberdinen ondorio izan dira: gatazka belikoak, enbatak eta ekaitzak, matxura mekanikoak, suteak, ur-zirrikituak edota giza akatsak.

Argitalpena urtarrilaren 15ean aurkeztu zuten Getariako Elkano Kofradian. Aurkezpenean izan ziren, besteak beste, Emeterio Urresti Elkano Kofradiako presidentea, Haritz Alberdi Getariako alkatea, Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Azpiegituretarako sailburua, eta ikerketaren bi egileak, Ana Mari Benito eta Javier Mazpule. Horiez gain, euren bizipenak eta testigantzak partekatuz lan horretan parte hartu duten herritar ugari bertaratu zen ekitaldira.

Egungo egoera tarteko, aurkezpen ekitaldia itxia izan zen eta gonbidapena zutenak bakarrik joan ahal izan zuten. Xumea, baina, era berean, berezia izan zen. Liburuan bezala, sentimendu ugari bildu ziren une eta leku berean: tristura, poza, mina... Hala adierazi zuen Emeterio Urresti Kofradiako presidenteak ere: "Itsasoari begira dagoen herri bat izanik, arrantzalea izanik, atzera berriro ere informazio hau dena ikusteak eta entzuteak oilo-ipurdia jartzen digu".

Haritz Alberdi alkatearen hitzetan, "esan daiteke hemen jasota dauden gertaera desberdin horiek getariarren izena eta izana direla". Liburuko pasarte bat ere gogora ekarri nahi izan zuen: "Familiaren ontzia minutu gutxian hondoratu zen, eta gaur egun Getariako badiaren hondoan pausatuta dago. Ordutik, joandako urteetan, ontzi hondakin haietan bizia hutsetik loratu da, berriz, hildakoen omenez".

Hiru urteko lana

2017an hasi ziren proiektu honen lanketaz hitz egiten, baina Benitok eta Mazpulek 2018an ekin zioten azken mendeko naufragioak aztertzeari. "2017an, egiten ari ginen antzeko proiektu baten harira, Getariako udal ordezkariekin eseri ginen. Alkateari gaia gustatu eta proposamen bat egin zigun, hain zuzen, Getariako kostan edo Getariako itsasontziek edo eskifaiek beste eremu batzuetan izandako naufragioak aztertzea", azaldu zuen Mazpulek. "Floren Iribar proiektu honen *alma mater*-a" izan dela gaineratu zuen Benitok, "hari esker osatu genuen agenda bat elkarrizketatuekin".

Hasieran ez zuten horrenbeste naufragio aurkitzerik espero, baina "pixkanaka-pixkanaka, gero eta gehiago agertzen hasi ziren, eta ikusi genuen

argitalpen bat egiteko adina informazio bazegoela", aitortu zuen Mazpulek. Horrelaxe, gaur esku artean izan dezakegun liburua egitea erabaki zuten.

Javier Mazpule, liburuaren egileetako bat, aurkezpenean.

"Liburu honek, nahiz eta txikia izan tamainaz, altxor bat gordetzen du. Zuen historia hunkigarria da. Zuengandik jasotako testigantzengatik zein informazioengatik, liburu hau zuena da, ez da gurea. Zuek bizitako pasarteei itxura ematea besterik ez da izan gure lana", adierazi zuen Benitok.

Lehenengo orrietan adierazten den bezala, itsasoan hil zirenak ahanzturan ez erortzea du helburu: "Omenaldia egin nahi diegu itsasoan bizia galdu zuten lagunei eta hondoratutako itsasontziei, memoria kolektiboan nabigatu dezaten, gure itsas historiaren parte direnez".

Testigantzak giltzarri

Iturri desberdinetatik edan du proiektu honek: aldizkariak, egunkariak, Getariako Itsas Barrutiko Artxibategia, Getariako Elkano Arrantzaleen Kofradiako Artxibategia, Pasaiako Itsas Kapitaintza, Getariako Udaleko Artxibategia, eta nola ez, ahozko iturriak. Azken horiek izan dira "ikerketaren ardatz nagusia".

Aurkezpenera bertaratuak, minutu bateko isilunea egiten.

Benitok eta Mazpulek hainbat elkarrizketa egin dizkiete istripuak izan zituzten pertsonei, haien senitartekoei, erreskate-lanetan parte hartu zutenei nahiz gertakarien lekuko izan zirenei. Liburuan aipamen berezia egiten diote ondorengo elkarrizketatuei: Juan Eizaguirre Ulazia *Xanti*, Pepita Basterrechea, Benigno Burgaña, Benito eta Josefina Gil Darpon, Maria Concepcion eta Miren Sorkunde Etxegoien, Eukene Etxegoien, Mari Nieves Garmendia, Juan Jose Azkue, Mari Carmen Lopez, Pello Iribar eta Inaxi Sorazu, Ezekiel Hilario Larrañaga, Fermin Larrañaga, Joxe Antonio Ibarbia, Ibon Errazkin eta Jesus Mari Bordagarai, Jose Luis Aranguren, Luis Alkorta, Antonio Iturbe, Endika San Martin, Emeterio Urresti, Ezekiel Alberdi, Tomas Otamendi, Edorta Murua eta Joxe Angel Kerejeta.

ARTZAPEk horietako hiru getariarrekin egoteko parada izan du: Juan Eizaguirre Ulazia eta Kontxi eta Miren Sorkunde Etxegoien. Hirurek kontatu digutena interesgarria bezain hunkingarria izan da.

Juan Eizaguirre: "Urteetan, lo egiteko ez nuen ixten nire gelako leihoa"

16 urterekin hasi zen itsasoan Juan Eizaguirre (1930), eta arrantza izan zen bere lanbidea 27 urtez. Getariarrak barrutik bizi izan zuen *Lurdesco Ama* arrantza-ontziaren naufragioa. Hain zuzen, 1949ko irailaren 5ean, 19 urte zituela, bere bizitzako pasarte gogorrenetariko baten lekuko izan zen.

Astelehena zen eta hiru ontzi ari ziren arrantzan Getaria eta Zumaia artean, "Alikanteko koskan": *Lurdesco Ama* eta *Jose Ignacio* ontzi getariarrak eta Orioko *Amesti Mendi*. Eizaguirreren hitzetan, "harrite izugarria eta haizea hasi zuen", eta hiru ontziak irauli egin zituen. "Oriotarra gure bistan joan zen hondora. Gureak ez ziren behera joan. Azkar eman zutenez buelta, haizea geratu zen tartean, eta ontziak azalean geratu ziren".

Eskifaiko sei kide ontziaren gainean geratu ziren; hiru, berriz, bodegan sartuta, tartean, Eizaguirre. Honek aitortu du "alde egiteko esperantzarik" ez zutela, baina bat-batean, haietako batek tapa bat zabaldu zuela gorputzaren pisuarekin, ustekabean, eta argia ikusi zutela.

Eizaguirre izan zen bodegatik irteten lehena. "Atera nintzenean, ontziari helduta zegoen batek ikusi eta deitu egin ninduen. Harengana poliki-poliki nindoala, beste batek heldu ninduen gerritik. Pixka bat eramaten nuen, baina haizeak ontzia urruntzen zuen, eta ezin nuen. Orduan, nire gerritik eskuak askatu nizkion. Ontzian zegoenak zer gertatzen zen ikusi, ontzia laga, eta nola edo hala, hura salbatzea lortu zuen". *Lurdesco Aman* zihoazen hamar itsasgizonetatik bat hil zen: Santi Eizaguirre Osa. Bera zen gazteena, 16 urte zituen eta "ez zekien igeri egiten".

Eizaguirre ondo gogoratzen da etxera zauriz beteta iritsi zela: "Harriak jota, burua dena zulatuta ekarri nuen, jostorratza sartzeko lekurik ere ez neukan. Orduko erremedioa erabiliz, ozpina gatzarekin, nolabait, zauriak erre zizkidaten".

Gertaera hark orbain fisikoak ez ezik psikologikoak ere utzi zizkion: "Urteetan, lo egiteko ez nuen ixten nire gelako leihoa. Bodegako itxitasun hartan beldurtu eta... denborarekin, ohitu egin nintzen".

Ezbehar hura gertatu eta gero ere itsasoan jarraitu zuten lanean, baina "ontziak behar baino karga gehiago zuenean, beldurtu egiten ginen". Gaur egun ontzi onak daudela-eta, itsasora begiratzean lasaiago geratzen dela dio Eizaguirrek. Egungo ontziek inbidia ematen diotela ere aitortu du: "Guk zenbat arrain harrapatuko ote genukeen ontzi hauek edukiz gero?".

Egindako ikerketa lanaren inguruan galdetuta, irakurtzen ari dela eta ondo eginda dagoela adierazi du. Era berean, horrelako gauzak egitea "garrantzitsua" dela ere nabarmendu du getariarrak.

Kontxi eta Miren Sorkunde Etxegoien: "Eman baino gehiago kendu digu itsasoak"

Bizitzan kolpe latzak jasotakoak dira Etxegoiendarrak. Kontxi eta Miren Sorkunde zazpi anai-arreba ziren, eta horietatik hiruk itsasoan galdu zuten bizia: Jose Marik (24 urterekin), Jose Joaquinek (22 urterekin), eta Agustinek (61 urterekin). Kontxik, anaiak ez ezik, senarra ere galdu zuen: Felipe Torre (32 urterekin).

Jose Mari eta Jose Joaquin Etxegoien anaiak eta Felipe Torra *Madre Obdulia* arrantza-ontziaren hondoratzean hil ziren, 1980ko martxoaren 14an. Agustin Etxegoien, berriz, 2008ko abuztuaren 23an, *Manu* izeneko *motor txiki*arekin izandako istripuaren ondorioz.

Bi ahizpek nolabaiteko gorrotoa gordetzen diote itsasoari, eta argi dute eman baino gehiago kendu diotela: "Balantzan jarri, eta eraman gehiago", dio Kontxik. "Ni ezin naiz igeri egitera joan", aitortu du Miren Sorkundek. Familiako lehenengo ezbehar hura gertatu zenetik beste modu batera begiratzen dio itsasoari, "errespetu handi-handia" dio. Kontxi, berriz, hiru bat urtez ez zen Artzapetik behera jaitsi.

80ko gertakari hartaz oroitzen hasita, "oso gogorra" izan zela adierazi dute biek. "Patroiaren andrea nintzenez, etxean irrati bat neukan eta 10:00ak aldera gizonarekin hitz egin nuen. Arrain askorekin zetozela eta anaiekin batera moilara laguntzera jaisteko eskatu zidan. Zain geundela izugarrizko itsasoa ekarri zuen eta nik inoiz ikusi ez bezala hasi zen txingorra egiten. Hiru bider etorri nintzen etxera irratitik hitz egitera, baina ezer ez". Orduantxe jakin zuen Kontxik zerbait gertatu zitzaiela.

"Pasaiatik, Ondarroatik eta Galiziatik etorritako arraste-ontziei esker", hondoratutako *motor txikia* non zegoen identifikatu zuten. Urpekariak jaitsi ziren eta hondarrarekin estalita zegoela ikusi zuten. "Ontzia aterako zuten edo ez galdetu zidaten, eta nik bertan lagatzeko esan nien. Hori izango da gure kanposantua. Hala, 40 urte daramatzat, Santu Guztien egunez, itsasora loreak botatzen", azaldu du Kontxik. Hondoratzea izan eta egun batzuk beranduago, sareak jaso zituzten. Senitartekoek han egongo zirela uste zuten, "baina azaldu zen gauza bakarra anaia baten jertse marroia izan zen", dio Miren Sorkundek.

Agustinen inguruan hitz egiten hasi orduko, "mutil oso ona" zela nabarmendu dute Etxegoiendarrek. Era berean, ordura arte bizitako dena berriro ere gogora etorri zitzaiela dio Kontxik. Bi *motor txiki*ren arteko talka izan zen *Manu*ren hondoratzearen arrazoia, eta autopsiaren arabera, Agustin bihotzeko batek jota hil zen.

Puntu hauetan eskuratu daiteke *Getariako Naufragioak. XX. mendea* liburua:

- Getariako Udalaren webgunea.
- Getarian, Harritarte eta estankoa.
- Zumaian, Otaño eta Aizpurua liburu dendak.
- Orion, Hontza.
- Zarautzen, Garoa eta Alizia.
- Elkar liburu dendak euskal hiriburuetan dituen saltokiak.
- Euskal kostaldeko herriak.

Hasieran, moilan aurkitutako enbor batek ¡o zuela uste zuten, baina ondoren, gauzak argitu egin ziren. Etxegoiendarrek epaitegira eraman zuten auzia, eta beste *motor txiki*ko patroia epaitua izan zen. Kontxiren hitzetan, "prozesua luzea izan zen, hiru bat urte ingurukoa, eta azkenean, hark irabazi zuen".

Getariako Naufragioak. XX. mendea liburu "zoragarria" iruditu zaie, eta eskerrak eman nahi izan dizkiete proiektu honen parte izan diren guztiei. Itsasoan ibiltzen diren guztiei egindako aitortza bat dela azaldu dute. Era berean, emakumeak ere hor daudela ikusteak "poz handia" eman diola adierazi du Kontxik: "Urte oso txarrak izan ziren, bi seme-alabekin bakarrik geratu nintzen. Orduan, lanean hasi eta umeak barnetegi batera eraman behar izan nituen. Alargun asko daude umeak aurrera bakarrik atera dituztenak".

Liburuan aipatzen ez diren, baina itsasoan hildako beste hiru lagunen berri ere eman du Kontxik: "Gure aitona, amaren aita, Gaztetapeko harraldean itota bilatu zuten; osaba Ferminen anaia, Rosiren gizona, ere hilda bilatu zuten; bestetik, 86-87 inguruan, osaba Paulok, sarean bilduta, 12-13 urteko neska gazte bat ekarri zuen".

Herritarrek Getariako eta getariarren historiaren berri izatea "garrantzitsua" dela diote bi ahizpek. "Gazte askok ez dakite zer pasatu den mundu honetan", gaineratu du Kontxik.

Naufragioetako itsasontziak

- Manolo
- Aurelia
- Maria
- Virgen del Carmen
- Nuestra Señora del Carmen
- Lyndiane
- Dos Hermanas
- Virgen del Carmen
- Bonanza 2º
- San Antonio
- San Jose
- Goizeko-Izarra
- Mari-Toya
- Nabarra
- D-17 (Marcos)
- Sendi Deuna (Sagrada Familia)
- Amesti Mendi
- Jose Ignaciorena
- Lurdesco Ama
- Jesus Milagroso (BH)
- Pascualtarra
- Izarra
- San Antonio Abad Nº3 (Zumeta)
- Virgen de los Remedios
- Benigno
- Yolimar
- Ibarbia Hermanos
- Jose Domingo
- Madre Obdulia
- Nuevo Ezequiel
- Igone
- Divino Corazon
- Nueva Yolanda
- Juliana
- Eleuterio Iribar
- Ezekiel (Punta Cotolino izandakoa)
- San Antonio
- Manu
- Berriz Patxiku

Iragarri genizuen joan den alean: euskara gaitzat hartuta, zer kontatu ugari duen jendea topatu dugu herrian. Andres Alberdi izan genuen hizlari orduan, Kaxildo Alkorta orain. Irakaskuntzan hasi eta administrazioko itzulpengintzan urte luzez aritu da euskaltzain getariarra.

KAXILDO ALKORTA

"ADMINISTRAZIOAN ERE, MOLDATZEKO ADINA JAKIN ASKOK, EGIN..."

TESTUA
IURE EIZAGIRRE

Xabierrera (Nafarroa), seminariora, joan zen gazterik, 17 urterekin. Hamar urte geroago utzi zion jesuita izateari, Filosofia ikasketak eginda. Euskara irakasten hasia, administrazioko testuak gure hizkuntzara itzultzen aritu zen gero. Bizkaieraren alde lan egiten duen Mendebalde Kultura Alkartean jarraitzen du.

Getarian jaioa zara, baina gaur egun Bilbon bizi zara, ezta?
Bai, orain dela lau urtetatik. Lehen Portugaleten bizi izan nintzen, berrogei urte baino gehiagoan.

Nolatan han?
Hamar urtez egon nintzen seminarioan, Xabierren, eta irtendakoan, beste horrenbeste urte pasa nituen ikastola batean: Sestaon bost eta Portugaleten beste bost.

Zuen garaian jende dezente pasa zen seminariotik.
Getariatik ez asko, Zumaian pila bat zeuden. Getarian, nire urtean, jesuitetan neu izango nintzen bakarra; bazeuden beste batzuk, ni baino zaharragoak, baina beste ordena batzuetan. Gero sartu ziren sei edo zortzi, baina haietako inor ez zen irten apaiz.

Ikasteko aukera ematen zizuen horrek, ezta?
Bai, erraztasun gehiago genuen. Nire Getariako lagunen artean, bakarren bat ezik, 1943an jaiotakoetatik, ez dakit batxilergo osoa nork egingo zuen; zaharragoek ere, gutxik. Orduan institutu bakarra zegoen, Donostiakoa. Orain dena egina dago eta ematen du beti hala izan dela, baina ez.

Titulua Madrilgo Konplutense Unibertsitatean atera zenuen?
Jesuitetan egindako ikasketak baliozkotu egin behar ziren. Nik Filosofia ikasi nuen, eta hori Madrilgo unibertsitatean baliozkotzen zuten. Niri titulua Loiolan eman zidaten ordea.

Seminariotik irtendakoan hasi al zinen Sestaoko ikastolan?
Jesuitetatik irtenda, Bilbora joan nintzen; lagunak nituen han eta pertsiana fabrika batean ibili nintzen lanean. Bitartean, elizako ikasketak baliozkotzeko ikasten ari nintzen. Konkordatu bat zuten Elizak eta Francok: Elizak bere titulua ematen zizun eta balio zuen eliza barrurako, handik kanpo eskolak emateko, ordea, baliozkotu egin behar zenuen. Seminarioan ibilitakook irakasgai batzuk erraz pasatzen genituen baina beste batzuetako azterketak gogorrak ziren guretzat, eta ikasi egin behar genuen.

Seminariotik irten eta pare bat urtetara nintzen azterketa

egitekoa baina Jon Paredes *Txiki* eta Angel Otaegi fusilatu zituzten eta aztertzaileek greba egin zuten. Hurrengo urtean eman zidaten titulua.

Portugalete eta Sestao inguruan eskolaurreko ikastetxe dezente zeuden orduan eta Sestaon, apaiz baten bitartez, kooperatiba modura, ikastola sortzeko nahia zegoen. Bilbon ere garai hartan sortu ziren batzuk.

Semea Deuston zuen zumaiar batek egin zidan ikastola batera joateko lehen proposamena, baina ezer erabaki gabe zuten. Bigarren proposamena Sestaotik etorri zitzaidan —bera orduan Portugaleten bizi zen—, eta gauzak argiago zeuden, ez zegoen iskanbilarik oraindik; hara joan nintzen. 11 irakasle izango ginen orduan, eta bost urte egin nituen han.

Garai hartan eraikin berria egiten ari ziren, Portugaleten, eta hara joan nintzen gero —eskualdeko ikastolak batu egin ziren eta egun Asti Leku Ikastola Ezkerraldeko familia-kooperatiba dute—.

Nolakoa zen ikastolako lana?
Sestaon, batetik, pozgarria, eta bestetik, nekagarria. Denerako balio genuen. Ikastola sortzen ari ziren orduan, euskaraz bi ordu-edo ematen ziren, eta gero, pixkanaka, gehitzen joan ziren.

Testuak? *Jalgi hadi* eta halakoak, baina horiekin zer? 11-13 urteko ikasleak nituen nik eta asteburuetan jartzen nintzen zer behar zen begiratzen. Bazeuden testuak irakurgaiekin, baina Sestaoko ikastolan halakorik ematerik ez zegoen, Zarautzen edo Getarian ere, kostata! Ilusioa ere bazegoen, ordea, hizkuntza aurrera



Kaxildo Alkorta, Euskaltzaindiako ate aurrean, duela urte batzuk. / Argazkia: Euskaltzaindia.

"Seminariotik irten eta pare bat urtetara egin behar nuen titulua baliozkotzeko azterketa. 'Txiki' eta Otaegi fusilatu eta aztertzaileek greba egin zuten. Hurrengo urtean eman zidaten titulua"

ateratzeko zerbait egin behar genuela pentsatzen genuen.

Hasierako ikasle haietako batzuekin euskaraz egiten dut orain, urte batzuetan kontzientziatu eta jardun dira, eta orain, euskaraz egiten didate.

Gero, Eusko Jaurlaritzaren Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean (IVAP) hasi zinen.
Eusko Jaurlaritza sortu zenean, ikastoletan testu liburuen falta zegoela eta, gobernuak ateratako postu baterako aurkeztu nintzen; ez nuen lortu. Hurrengo urtean, berriz, itzultzaile lanpostuak atera ziren eta hartu ninduten.

Orduan genuen prestaketarekin, ez zen zaila izan. Guk etxeko euskara genuen eta, gero, norberak irakurri eta bere kasa lortutakoa. Seminarioetan ibilitakook abantaila txiki bat genuen: latina pixka bat ikasi genuen eta euskara ere bai. Lanean ere, ikastolan, beti ikasten genuen, umeei irakatsi behar eta... Batuarekin, adibidez, aldaketa handiak izan ziren, ortografian eta abarretan.

Itzulpenei dagokionez, batxilergoan latinetik gaztelaniara egiten genituenen esperientzia genuen eta gero, pixkanaka, lanean, euskarara egiten hasi ginen. Beste batzuek guk baino gehiago zekiten eta haiek lagundu eta zuzentzen zizkiguten testuak. Eskaladan ere inor ez da joaten zuzenean, batak besteari lagunduta iristen dira.

IVAPen, administrazioko dokumentuak, juridiko batzuk ere bai, itzultzen genituen euskarara. Askotan eskoletatik ere etortzen ziren testuak, eurek euskaratutakoak, zuzentzeko. Enpresa batzuekin ere bagenituen kontratuak.

Noizbait itzulpen bereziak izaten ziren, Europako Batasunean sartu ginenean, adibidez. Hango paperak euskaratu behar ziren eta hiztegi bat ere osatu zen dokumentu haiekin.

Bestalde, administrazioko jendea euskalduntzeko tratua genuen euskaltegiekin. Nagusia eta biok aritzen ginen horretan; euskaltegietara deitzen nuen irakasleak bidaltzeko administrazioko jendeari eskolak eman eta euskaraz egiten zuenari laguntzeko.

Hala ere, ezin esan administrazioa euskaldundu denik.

Osakidetzan, adibidez, euskaraz egiten dutela diote, baina euskara hutsean egin al daiteke? Ertzainak kontrolean geratu eta hirutan-edo segiko nuen haiekin euskaraz; edonork kontatuko dizu "*¿a dónde va?*" galdetu diotela eta ez "nora zoaz?".

Administrazioan asko egin da baina kaleko bera gertatzen da: moldatzeko moduan jakin, askok, gero egin... Administraziotik kanpo, tabernetan-eta gertatzen da, eta tabernetakoak administraziora joaten dira. Ez da administrazioaren kontua, geu gara.

Eta sortu? Sortzen al da dokumenturik euskaraz?

Ez. Lege arloan euskaraz gutxi sortzen da, orain ez badira gauzak asko aldatu behintzat. Administrazioan aldea egon daiteke zuzendariaren arabera, batzuek beraien zerbitzuetan euskaraz sortzen zuten.

Itzulpenetarako irizpideak zeintzuk dira? Batzuetan kosta daiteke administrazioko euskarazko testuak ulertzea.

Bai, baina zer prestakuntza dugu ba? Euskara *gruyere* gazta bezalakoa da, zuloz betea, hizkuntza bera egiten ari da. Gu hasi ginen dena konpondu nahian, bost urtean dena konpondu nahian... hizkuntza ez da mugitzen bost urtean.

Ze irizpide? Nik erabiltzen nuena zen alde batean zegoena bestean egotea, gezurrik esan gabe. Batzuetan testua irtengo zen luzeagoa batean eta laburragoa bestean, baina nik irakurtzen badizut gaztelaniaz edo euskaraz, bietan gauza bera uler dadila. Esanahia eman behar zaio itzulpenari.

Euskaltzain urgazle ere bazara, nola sartu zinen Euskaltzaindian?

Sartu egin ninduten. Ni orduan Mendebalde Kultura Alkartean nenbilen. Euskaltzaindiak hiztegi bat egin nahi zuen erabiltzen ziren baina jaso gabe zeuden hitzekin. Ordurako bazeuden hiztegi batzuk –Labayru, Mujika zaharrarenak...– eta euskara batuko zerrenda egiten hasita zeuden. Niri eskatu zidaten ea egingo nuen falta ziren bizkaierazko hitzena, "hiztegietan begiratuta eta aditutakoetatik". Denak dokumentatuta egon behar zuen, halere. Talde bat aritu ginen horretan urteetan.

IVAPen ere egiten genuen hiztegia osatzeko lanketa: testuetatik hitzak atera eta bileretan eztabaidatu balekoak ziren edo ez erabakitzeko.

Hiztegia egin eta gero iritsi zitzaidan Euskaltzaindiakoen abisua. Andres Urrutiak berak esan zidan lana egiten duenari ere zerbait eman behar zaiola eta... Nire ikasle izandako bat

"Hemen pentsatzen da bizkaieraz edozer esaten dela, gaztelaniazko edozein hitz esango dutela, baina hitz pila bat dituzte hemen galdu direnak"

Kaxildo Alkorta, goiko lerroan seigarrena, Mendebalde Kultura Alkarteak 2008an antolatutako jardunaldietan. /Arg.: Mendebalde Kultura Alkartea.

Kaxildo Alkortak, Mendebalde Kultura Alkartearen izenean, jaso zuen Bilboko Liburu Azokak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak ematen duten Urrezko Luma, 2012an. Mendebaldeko hizkeraren eta euskararen alde egindako lanagatik egindako aitortza izan zen. / Arg.: Bizkaie.

ere izendatu zuten euskaltzain urgazle, laguntzaile, eta poz galanta hartu nuen.

Jarraitzen al duzue lantzeko eskatu zizueten hiztegiarekin?
Bai, bai, hiru urtetik behin-edo berritzen ari dira. Hitz bat sartzeko zalantzak badira, hurrengo bueltarako uzten da.

Mendebalde Kultura Alkartea aipatu duzu. Bizkaiera aztertu eta lantzea du oinarri, eta zu zeu zuzendari...
Bizkaierak Bizkaiko eta Gipuzkoako parte bat hartzen dituenez, mendebaldekoa deitzen zaio. Bizkaierak batuari ekarpena egin diezaiokeela uste du elkarteak, bai hitzetan, bai esamoldetan. Hemen pentsatzen da bizkaieraz edozer esaten dela, gaztelaniazko edozein hitz esango dutela, baina bizkaieraz hitz pila bat daude hemen galdu direnak; hemen maileguak hartzen ditugu gaztelaniatik.

Nik ezagunak nituen elkartean eta zer lan egiten zuten ikusi nuen: hileroko bilkurak, urteroko jardunaldiak, horko monografikoaren argitalpena, herrietako euskara aztertzen zutenei laguntza, azterketa soziolinguistikoak...

Taldeko kide batek, adibidez, lan handia egin du bizkaierarekin: anekdotak jaso, ahoskera landu, esaera zaharrak non esaten diren aztertu, ipuinak leku batean modu batera eta bestean bestera nola kontatzen diren batu...

Hori guztia bizkaieraren aldeak azaleratzeko, ze bizkaiera ere ez da bat eta bakarra. Badu herri bakoitzak duen bereizgarri hori. Getarian, adibidez, grazia egiten dit, dena *be(ha)r* da: "egin *ber*", "etorri *ber*"... *Bihar* erabili izan dugu: "egin *bihar* dek", "etorri *bihar* al dek?"... Nondik atera dute *ber* hori? Nola idazten da? Non sartu behar zaio "h"? Horrelako mila gauza daude.

> "Nahiago dut Hondarribian euskaraz dakiena gaztelaniaz entzutea baino, Portugaleten euskaraz ez dakienak gaztelaniaz egitea"

Arlo ezberdinetako jendea zegoen elkartean: ezagunak, unibertsitatetako zein institutuetako irakasleak... Gipuzkoar bakarra ni nintzen, eta azken hiru edo lau urteetan, presidente. Mendebaldeko Obama nintzela esaten nuen.

Elkarteak lanean jarraitzen al du?
Hogeita bi urte-edo eman zituen, azken urteetan bultzaka. Oraindik ez diogu hiletarik egin baina aspaldian ez da batu.

Urte asko daramazu inguru hartan, zer moduzkoa da euskaldunaren bizimodua Ezkerraldean?
Zaila, baina nahiago dut Hondarribian euskaraz dakiena gaztelaniaz entzutea baino, Portugaleten euskaraz ez dakienak gaztelaniaz egitea. Han dakitenak ahalegindu egiten dira, eta gutxi batzuekin beti euskaraz egin izan dut.

Getarian ez al da Hondarribikoa gertatzen?
Bai, pasatzen da, Getarian ere dezente ikusten dut. Ez dago euskaraz jarraitzen duenik, elkarrizketetan gaztelaniazko esaldiak sartzen dira, ikasitakoak, "*es lo que tenemos*" eta halakoak.

Ze irtenbide du horrek?
Norbera konturatu behar da, konturatzen ez bada, alferrik da.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Beste mundu bat oraindik ere posible da

Donostiako Zero Pobrezia plataformako Iñigo Odriozola eta Gema Hierrok idatzi dute ondoko artikulua, eta Elan Euskadik bat egiten du honekin.

"Asko dira gizarte gisa ditugun erronkak, eta are gehiago egungo osasun-larrialdiaren testuinguruan.

Hala ere, pobreziak, zoritxarrez, pandemiarik mingarriena, justifikaezinena eta 'toleratuena' izaten jarraitzen du, gure premiazko ekintza sozial eta politikoa eskatzen duena. Hain zuzen ere, duela 15 urte, pobreziarekin eta desberdintasunekin kezkatuta zeuden hainbat gizarte-kolektibok ekintzara pasa eta Donostiako Zero Pobrezia Plataforma eratzea erabaki genuen. Nazioarte mailako kanpaina bat zen, 2000an Nazio Batuen Erakundeak adostutako Milurteko Garapen Helburuen harira jaioa.

Gure ibilbidean, erakutsi ditugu pobreziaren eta bazterkeriaren hainbat adierazpen ingurune hurbilenean zein munduan; haien kausak ere identifikatu eta salatu ditugu. Ulertu dugu pobreziaren aurkako borroka asistentzialismoaren eta ekintza humanitarioaren logika aplikatzetik harago doala, eta gizartea aldatzeko borondate politiko eta herritarra behar duela, zuzentasunaren, justiziaren eta giza eskubideen balioetan oinarrituta.

Helburu hori jomuga izanda, pobreziak dimentsio asko dituenez, txirotasuna desagerrarazteko ezinbesteko zenbait arlo jorratu ditugu. Lehendabizi, azaleratu ditugu emakumeek sistematik jasaten dituzten bazterkeriak. Bigarrenik, hezkuntzaren edo osasunaren antzeko eskubide guztiak mundu osora hedatzea aldarrikatu dugu. Hirugarrenik, migratzaileen aurkako politikak salatu ditugu, kriminalizatzen baitituzte segurtasunaren bila ari diren pertsonak, edota bizitza duina lortu nahi dutenak. Azkenik, agerian jarri dugu natura zaintzearen garrantzia pobrezia desagerrarazteko, adibidez, aldaketa klimatikoa geldituz edo ekoizpen eta kontsumo ereduak eraldatuz, azken horiek oinarritzen baitira baliabide naturalen xahupenean eta pertsonen esplotazioan. Protesta ez ezik, proposamenak ere egin ditugu. Horretarako, zenbait alternatiba eta benetako ekimenak partekatu ditugu, esate baterako, bidezko merkataritza, kontsumo arduratsua eta gertukoa, edota finantza etikoak. Horiek guztiak, hain zuzen ere, oinarrituta daude lankidetzan, guztion ongizatean eta eredu bidezkoago eta solidarioagoan, betiere tokian tokiko esparrutik giza garapen iraunkorra lortzeko.

Irakaspen horiekin, 15 urteren ondoren eta mundua astindu duen pandemia baten erdian, oroitu genuen urriaren 17an Pobreziaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Hala ere, osasun-larrialdi honek ezin ditu ezabatu orain arte munduan gertatzen ziren bidegabekeriak. Gizarte askotan giza eskubideak larriki eta behin eta berriz urratzeari osasun-krisi bat gehitu behar zaio, eta horrek egoera larriagotuko du, desberdintasun eta prekarietate handiagoa sortuz, batez ere pertsona eta herri ahulenetan. Hala ere, COVID-19aren hedatzea arazo globalen aurrean konponbide eta politika globalak adostu behar ditugula gogorarazten jarraitzeko aukera ere bada, eraldaketa pertsonal eta kolektibotik, inor atzean utzi gabe.

Horregatik, *Beste mundu bat beharrezkoa eta posible da: desberdintasunak ezabatu!* lelopean, pobrezia ekidin daitekeela eta horretarako borondate politikoa behar dela aldarrikatzen dugu. Baita egungo eredu ekonomikoa eta instituzional globala eta neoliberala ere irauli dezakegula, horren sorreraren eta betikotzearen arduraduna delako. Era berean, uste dugu herritarrek pobreziarekin eta desberdintasunekin amaitzen lagun dezaketela salaketaren, mobilizazioaren, gizartearen parte-hartzearen edo egunerokotasunaren bidez.

Bestalde, erakundeek erantzun ausartak eta premiazkoak eman behar dituzte egungo larrialdi-egoera eta horren ondoriozko krisi ugariak arintzeko. Elkarrekin, orain inoiz baino gehiago, premiazkoa da bizitza erdigunean, ingurumenarekiko errespetuan, genero-ekitatean eta, azken batean, pertsona guztientzako bizitza duinean jarriko duten bizi-eredu berrietarantz egitea".

udalsarea21

Ezagutu Europako Itun Berdea (I)

Europako Itun Berdea eraldaketaren sinonimo da, ingurumena gehiago errespetatzen duen ekoizpen-eremu baten eta lan-aukera zein merkatu-nitxo berrien garapenaren sinonimo. Laburbilduz, ekonomia jasangarriaren aldeko bultzadaren sinonimo.

Nolanahi ere, koronabirusaren agerpenak batugai berri bat gehitu dio ekuazioari: oraindik ere sakonera eta iraupen ezezaguna dituen krisi ekonomiko bat gainditzea. Europako Itun Berdea mekanismo nagusietako bat izango da krisitik ateratzen lagundu eta etorkizun jasangarriagoa lortzeko.

Europako Itun Berdearen oinarriak

Europako Itun Berdea, funtsean, Europar Batasunari klima-neutraltasuna 2050ean lortzea ahalbidetuko dion hazkunde-estrategia bat da. Hau da, zero karbono-aztarna, askatzen den karbono dioxidoaren (CO_2) kantitatea atmosferatik kentzen denarekin edo landareen bidez finkatzen denarekin orekatzearen bidez lortuko dena.

Ondorengo irudian ikus daitezke Ituna definitzen duten ildo nagusiak.



Garapen asko oraindik ere zehaztu gabe egon arren, eta krisi sanitarioak hasierako lan egutegia aldatu balezake ere, ondorengo argitalpenetan epigrafeetan deskribatzen diren akordio honen oinarrian egongo diren ildo nagusiak xehatuko ditugu.

Informazio gehiago:

Tel. 943 896024
www.ihobe.eus
maizpuru@getaria.eus

AITOR IRIGOIEN

Crash (Colisión)

"Ukitua izatearen sentsazioan datza kontua. Beste edozein hiritan, oinez zoazen bitartean, bidean gurutzatzen duzun jendea zeharka ukitzen duzu edo eurekin tupust egin. Los Angeles hirian, ordea, inork ez du inor ukitzen, beti burdin eta kristal atzean. Iruditzen zait hainbeste botatzen dugula faltan elkar ukitze hori ezen (kotxean) bata bestearen aurka joan eta talka egiten dugun. Soilik zerbait sentitzeko, kontaktu minimo bat bederen". Esaldi gogoangarri honekin hasten da Paul Haggisek zuzendutako *Crash* maisulana.

Ez naiz Oscar sarien oso zalea. Askoz interesgarriagoak egin izan zaizkit bestelako jaialdiak: Cannes, Sundance, Berlinale, Zinemaldia... Agian, Oscarretan, ia beti pelikula eta gidoi onenak saritu gabe geratzen direla iruditu izan zaidalako, 2006ko salbuespenarekin, non *Crash* filmak irabazi baitzituen film zein gidoi onenaren sariak.

Pelikula ikusi nuen lehen aldian zur eta lur geratu nintzen, erabat "ukitu" ninduen. Ordura arte halakorik ikusi gabea nintzen: egun bakar batean, hiri berean, gertatzen diren hamaika istorio desberdin, hasieran guztiz independenteak diruditenak, baina ondoren, pixkanaka, eta modu magikoan elkarlotzen doazenak. Kasualitateak baino, kausalitateak eraginda.

Eta denak lotzen dituen hari xehea Los Angeles eta bertako egoera dira: bertan bizi diren kultura eta arraza desberdinak, euren arteko gaizki-ulertuak, beldurrak eta harresiak, aurreiritziak

eta arrazakeria, armak eskuratzeko erraztasuna, agintarien zein poliziaren jokabideak... Eguneroko koktel arriskutsu eta lehergarria, elkarri eragindako min basatia, hilketa eta heriotza zentzugabeak...

"Bizitzaren abiaduran, denok galtzen dugu kontrola". Filmeko esaldi honek ere oso ongi islatzen du bertan ikusten dena: egunerokoaren borrokan eta presek eragindako abiaduran, bakoitza berera joatea eta horrek dituen ondorio kaltegarriak. Pertsona batek, uneko amorruak edota berotasunak eraginda, burua erabat galtzen du segundo batez, eta honek atzera bueltarik gabeko kalteak eragiten dizkie hirugarrenei, euren bizitzak erabat baldintzatuz, ia beti, inolako errurik ez duten pertsonei. Benetako errudunak diren boteretsuei aurre egitea baino errazagoa, eskuragarriagoa, izaten baita are ahulagoa edo are eta posizio

baxuagoan dagoena erasotzea. Errazagoa bezain injustua eta alferrikakoa, benetako errudunek betikoan jarraitzen baitute, biktimak elkar erasoz dabiltzan bitartean.

"Nor zaren badakizula uste al duzu? Bada, ez daukazu ideiarik". Filmak erakusten digun beste kontu bat ondorengoa da: nola sarritan pertsona zintzoenak eta baloredunak diren kontrola galdu eta erasotzaile bilakatzen direnak, nola pertsona onenak diruditenei ere txarrena ateratzen zaien une batean, eta alderantziz, nola pertsona txarrenak eta zitalenak diruditenek ere on egiteko gaitasuna erakusten duten kasu zehatzetan, pertsona beraren onena eta txarrena txanpon beraren bi aurpegiak bailiran.

Eta horrela, protagonisten inguruan ere itzuli asko ematen ditu filmak. Batzuek bigarren aukera baliatzen dute aurrez gaizki egindakoa, nolabait, konpontzeko. Beste batzuen kasuan, berriz, bigarren ekintza batek aurrez egindako dena estaltzen du.

Kotxeen talkek islatzen dituzte pertsonen eta kulturen arteko talkak: denda txiki bat duten siriar familiak jasaten dituen pintaketak, zerrailak aldatzen dituen langile mexikarra eta bere alaba txikia, kotxeak lapurtzen aritzen diren gazte beltzak, polizia beterano arrazista eta polizia gazte idealista, beltzen botoa behar duen politikaria eta bakarrik eta haserre sentitzen den bere emazte arrazista, asiar jatorriko pertsonen kontrabandoan aritzen den sarea, nagusi zuriek agintzen diotena zintzo betetzen duen zinema zuzendari beltza...

Memoriari iltzatuta geratzen diren eszena izugarriak uzten dizkigu filmak, edozeinen kontzientzia kolpatzen eta zer pentsatua ematen dutenak. Azken aldian bizitzen ari garen une zail eta gris hauetan, are eta errealagoa eta gertuagokoa dirudien filma. Elkar ulertzearen, laguntzearen eta maitatzearen garrantzia agerian uzten duena. Edo, hain sakon jarri gabe, giza kontaktuaren edo besarkada baten beharra eta indarra erakusten duena.

Partaidetza

Kaixo Urritza kideak!!"

Zer moduz 2021. urtearen hasiera? Espero dugu primeran hasiko zenutela.

Pandemia dela eta momentu onenak ez diren arren, gu gogoz eta ilusio handiarekin gaude hilero zuekin elkartzeko. Abenduan egin genuen Gabonetako apaingarrien ekintzak sekulako partaidetza izan zuen eta urtea barre eta poz handiarekin bukatu genuen.

Hala ere, kide asko ez elkartzeko eta eskatzen dizkiguten neurriak bete ahal izateko erabaki bat hartu dugu: ekintzak adinaren arabera txandakatuko dira, hau da, LH 3., 4. eta 5. mailakoekin hilabete batean ekintza bat eta txikiagokoekin hurrengo hilabetean. Beti ere, izen-ematea aurrez eginda eta protokolo neurri guztiak beteta.

Bestalde, dakizuen bezala, Urritzako kideoi ikaragarri gustatzen zaigu mozorratzea. Hori dela eta, nahiz eta aurten ez ditugun inauteriak urtero bezala ospatuko, horrekin lotutako ekintza bat egitea pentsatu dugu. Beraz, animatu eta jarri diezaiogun kolorea gure herriari.

Besterik gabe, ikusiko gara eta besarkada handi bat.

GETARIAKO HITZA

ANDRES ALBERDI

Tonto/tuntun *errania*

Getariatik kanpo ez da entzuten hitz hau (*errania* < *erranea*). Gehienetan *tonto* eta *tuntun* hitzei lotuta erabiltzen da, endemas; irain modura: ***tonto/tuntun errania!*** Horren ordain ezagun eta hedatuena *arraio* da (*tonto/tuntun arraioa!*). Bigarren formulazio hori ere erabiltzen da Getarian.
Errani(a) horren oinarrian *arrane* hitza dagoela dirudi. Eta *arrane* hitzaren oinarrian, *arrano*. Eta *arrano* hori *arraio* hitzaren aldaera leungarria baino ez da. Hala jasotzen du *Euskaltzaindiaren Hiztegi*ak: *Azkenean ere harrapatu zaitut, maltzur, zital arrano hori!* (*Arrano* hitzak, noski, badu beste adiera bat ere, hegazti harrapariarena, baina ez du zerikusik gaurko kontuarekin).
Enbor berekoak dira, beraz, *arrane/errane*, *arrano*, *arraio*.
Behin honetara ezkero, eman daiteke beste urrats bat ere. Arrasto guztien arabera, *arraio* horren azpian gaztelaniazko *rayo* dago (¡Qué rayos te ocurre! / Zer arraio gertatzen zaik/zain!).

Oharra: Kaxildo Alkortak egin digu hitz honi buruz hitz egiteko proposamena.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *info@artzape.eus*era ezagutzen dituzun hitzak.

TXIKIEGIA AGIAN

AMAIA IRAZABAL

Isiltasuna harri bat da

Amsterdameko auzoko bat

eskultorea zen.

Egunero harri handi bati

forma aldatzen zion.

Milimetro karratuka.

Nonork igerriko zion.

Espazioak uzten ziona urruntzen zen

eta besoak gurutzaturik begiratzen zion.

Zaila zen harriak esaten ziona imajinatzea,

eta galdetzea errazegia.

Noiz ematen da bukatutzat?

"Zizelaren kolpe bakoitzean bukatzen da eskultura".

Eta ze izen jarriko diozu?

"Nola esaten da euskaraz isiltasuna?"

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

2021eko OTSAILA

30 Larunbata

Altxorraren bila

Ordua: *16:00*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 5. mailara arteko haurrentzako ekintza. Urtarrilaren 25a baino lehen izena emandakoek bakarrik hartu ahal izango dute parte.*

5 Ostirala

Juan Sebastian Elkano Musika Eskolaren batzar orokorra

Ordua: *19:00*
Lekua: *Musika Eskolaren egoitza, kultur etxea*
Antolatzailea: *Juan Sebastian Elkano Musika Eskola*
Joan nahi dutenek aurrez jakinarazi beharko dute edukiera kontrolatzeko. Horretarako idazkaritza@getariakomusikaeskola.eus helbidera idatzi dezakete.

Ikastaroak

Optimizazioa telefono adimenduen erabileran

Data: *otsailaren 5etik martxoaren 17ra, astelehen eta asteazkenetan.*
Ordua: *16:00-18:00*

Oroimena suspertzeko tailerra

Data: *otsailaren 16tik apirilaren 20ra, astearte eta ostegunetan.*
Ordua: *17:00-19:00*

Bizitza osasungarria elikaduraren bidez

Data: *apirilaren 14tik maiatzaren 17ra, astelehen eta asteazkenetan.*
Ordua: *17:00-19:00*

13 Ostirala

Inauteriak

Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea LHko 2. mailara artekoentzat.*

Cristobal Balenciaga Museoa

- *Urtarrilak 31, "Silueta utopikoak" tailerra.*
- *Otsailak 7, "Haria jarraitu!" familientzako tailerra.*
- *Otsailak 14, "Azaletik bolumenera" familientzako tailerra.*

Izena emateko didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com.

Zuzenketa

Aurreko hilabeteko *Plist&Plast* komikian Bizarzuri Olentzero eta Mari Domingiren postaria zela idatzi genuen. Ez zen zuzena, Bizarzuri Errege Magoen postaria baita Getarian.

Barkatu eragozpenak.

Artzapeko lantaldea.

Kiroldegiko zozketa

Hilabete honetan, Sahatsaga kiroldegiaren eskutik, **aerobik saioetarako hilabeteko bonua** zozkatu dugu Artzapeko bazkideen artean.

Otsaileko irabazlea:

Aitor de la Hoz Alberez

ZAINTZA EGUNAK

Otsailaren 15etik 20ra.

FULDAIN FARMAZIA

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com